LARRAMENDI ETA BONAPARTEREN MENDEURRENETAN JUAN MATEO ZABALA GOGOANGARRI

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA

Aita Manuel Garagorri Larramendi (1690-1766) josulagunaren hirugarren jaiotzako mendeurrena ospatu dugu iazko urtearen zehar, eta Louis Lucien Bonaparte (1813-1891) printzearen heriotzaren lehena ospatzen dugu aurten. Andoaindarren biografiaz eta lanaz hainbat hitzaldi entzuteko aukera izan dugu, eta entzun ez dituenak ere izango du esandakoak ezagutzeko parada, argitaratuak izango baitira. Larramendiren eta honi buruzko bibliografia ere, Euskaltzaindiaren "Azkue Biblioteka" delakoak prestatu duen erakusketaren bidez ikusgarria izan da. Bonaparteri ere horrenbeste zor zaionez, izango ditugu aurten hitzaldiak, biltzarrak eta erakusketak euskararen alde hainbat lan egin zuen gizon hau ezagutzeko aukera izan dezagun.

Dakigunez, kimika estudioak eta ikerketak egin ondoren, hizkuntzalaritzara jo zuen, nahiz eta Inglaterran jaio, orduan italiarra zen Bonapartek. Eta Italian, Florenzian hain zuzen, argitaratu zuen 1847an lehen linguistikazko lana: *Specimen lexici comparativi omnium linguarum europearum,* non ematen dituen 56 euskal hitzetatik gehienak Larramendiren *Diccionario trilingue del castellano, bascuence, y latin* (San Sebastián, 1745) liburutik hartu zituen. Urbinoko josulagunen ikastetxean egin zituen Bonapartek lehen ikasketak eta dudarik gabe han izango zuen eskura Larramendiren hiztegia, Carlos III.ak erbesteratu zituen josulagunek eramanda noski.

Eta hara non 1856an Euskal Herrira printzeak egiten duen lehen bidaian berriz Larramendirekin topo egiten duen Zarautzen, frantziskotarren komentuan. Juan Mateo Zabala (1777-1840) frantziskotarraren idazlan bat aurkitzen du bertan, Do-

nostian inprimatzeko ermango duena: *Noticia de las obras bascongadas que han salido á la luz después de las que cuenta el P. Larramendi.*

Juan Mateo Zabala Bilbon jaioa zen eta 1815ean iritsi zen Zarauzko komentura. Aita Añibarro 1830ean hil zenean, berak hartu zuen komentuaren kronista kargua eta ardura horretan jarraitu zuen 1840an hil arte. Baina ez zuen lan horretan bakarrik ihardun, euskararen gramatika ikertu bait zuen, euskal literatura irakurtzen ordu luzeak eman zituen, itzulpenak ere egin zituen, eta abar. Esate baterako, 1831an Fleury de Lecluseri (1774-1845) "La parábola del hijo pródigo en bizcaino, guipuzcoano y labortano" igorri zion, Bonaparteren aintzindari agertzen zaigularik. Juan Mateo Zabalaren bizitza eta lanak aztertu nahi dituenak honako lan honetara jo beharko du, hots, Juan Ruiz de Larrinaga (1876-1954) frantziskotarraren "El vascófilo franciscano R. P. Fr. Juan Mateo de Zabala" (RIEV, 1924, XV, 33-82, 313-336).

Lecluserekin izan zituen harremanak aspalditik zetozen. Orain interesatzen zaigun lan bibliografikoari dagokionetik, 1828ko apirilaren 14ean diotso Leclusek Tolosako Mendizabali jaso duela aita Zabalaren "Lista de 55 obras de autores vascos". Juan Ignacio Mendizabal, Tolosako inprimatzailea, Lecluse eta Zabalaren bitartekoa zen. Dirudienez, Lecluseri bidali zion zerrendaren kopia bat atera zuen Mendizabalek eta gero, honen kopia igorri zion Zarautzera aita Zabalari, Bonapartek eskuratu zuena eta honen fondoan Bizkaiko Foru Diputazioaren Bibliotekan gordetzen dena. "Juan Ignacio Mendizabal escribió este papel" agertzen da azken orrialdean, eta azpian "+ 1839", Mendizabalen heriotza urtea ematen digularik, hurrengo urtean alargunaren izenean agertzen baita Tolosako moldiztegia.

Juan Mateo Zabalarena da, bada, *Noticia de las obras bascongadas*...lana. Jose Manterolak Agustin Pascual Iturriagari atxeki zion, baina lehenago Francisque Michel-ek, Pierquin de Gembloux-ek, eta geroago Allendesalazarrek argi eta garbi diote Zabalarena zela. Eta Lecluseren gutuna ikusi ondoren, ez dago zalantzarik, Fray Juan Ruiz de Larrinagak frogatzen digunez.

Izatez, euskal bibliografian aditua zen gure aita Zabala. Gogora dezagun egilea hil ondoren argitaratu zen *El verbo regular vascongado* liburuan (San Sebastián, I. R. Baroja, 1848) zehazki 30 euskal liburuen aipamena egiten digula. Zarauzko komentuan ez zuen 1834ko exklaustrazioak eraginik izan eta osorik iraun zuen bi menderen zehar osotzen jarraitu zuen bertako bibliotekak, berau euskal gaietaz honako euskal idazle hauek aberastu zutelarik: Franzisko Antonio Palacios (1727-1804), Pedro Antonio Añibarro (1742-1830), Jose Kruz Etxeberria (1773-1853), Cristobal Linaza (1806-1866), eta bestek, denak gure aita Zabala baino zaharragoak.

Juan Mateo Zabalak 1828an bere saioa idatzi arte, oso gutxi zen euskal bibliografiaz espresuki argitaratua, eta kanpotarrengana jo behar dugu zeozer aurkitzekotan: Rivadeneyra, Nicolas Antonio, Llorente... Larramendi izango da, behar bada, euskarari buruzko gure lehen bibliografoa (1745). Gero, Arabari buruz, zeozer esango digu Landazurik (1789). Juan Mateo Zabalaren atzetik etorriko zaizkigu Antoine D'Abbadie, *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne* (Paris, 1836)

liburuan "Bibliographie basque" ematen diguna, Dionisio Hidalgo, *Boletin bibliografico español y extranjero* (Madrid, 1840-1850) bilduman euskal aipamenak egiten dituena, Pierquin de Gembloux, *Bibliographie des patois* (Paris, 1841) eta *Bibliographie basque* (1858) liburuetan gure gaiak ikutzen dituena, Francisque Michel, *Proverbes basques d'Oihenart précédé d'une introduction bibliographique* (Bordeaux, 1847) eta *Le Pays Basque...* (Paris, 1857) liburu ederrean euskal bibliografia serio bat ematen diguna, eta abar labur bat. Gero etorriko dira Allendesalazar, Vinson, Soraluze, Sorarrain eta beste.

Baina hor dugu Zabala baino lehen euskal liburuen bibliografia labur bat eman ziguna: Aita Manuel Garagorri Larramendi. Eta non? Donostian Bartholomé Riesgo y Monterok 1745ean argitara eman zuen *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin* liburuaren hitzaurreko XXXIV-XXXVIII orrialdeetan. Luze jotzen du bere irazkinetan eta hemen laburtu egingo dugu aipamenen edukina:

1.- Dos *Cathecismos*, uno breve y otro más largo. Hízolos imprimir Pedro Guillelmo de Lavieuxville. 1733.

2. El *Kempis ó Contemptus mundi*. Traducido por M. Chourio. 1720.

3.- *Doctrina Christiana*. Juan de Beriain. Pamplona, 1626.

4.- *Noelac eta berce canta espiritual berriac*. Joanes de Echeberri. Bayona, 1630.

5.- "El mismo autor tiene otro volumen mayor también en verso... de que hago mención en el Arte del Bascuence" dio Larramendik Salamancan irakurri zuen liburu honetaz. *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada* (Salamanca, 1729) liburuaren 375 orrialdean ematen digu titulua, hots, *Manual devocionezcoa, edó ezperén orén oró escúetan erabiltzeco liburuchoá, Escárazco versután eguiñá, eta guztiá bi partetán bereciá*. Ziburuko Joannes Etxeberri-rena dugu liburu hau, Bordelen 1627an lehendabizi inprimatua.

6.- "Otro librito impresso en Bayona, sin nombre de autor, y sin el año de la impression, contiene Exercicios Espirituales, y oraciones en prosa y verso; y al ultimo la Passion del Señor por San Matheo, y San Juan, todo muy bien hablado" dio izenbururik eman gabe. *Exercicio spirituala, bere salbamendua eguiteco desira duten guiristiñoençat lagunça handitacoa*, Baionan lehendabizi 1716an inprimatua ote da liburu hau?

7.- Pedro de Argainarats aipatzen du gero, eta Bordelen 1641ean argitaratu zuen 572 orrialdedun liburua, titulurik gabe. Honako hau da dagokion titulua: *Avisu eta exortationea probetchosac bekhatorearentçat, nola artha principalena behar duen bere arimaz, eta ez bere gorputçaz, contricionearen eguiteco, eta manamendua gaisiean conscienciaren examinateco artearegui*n.

8.- Liburu honetan ere ez du titulurik ematen, baina Bernardo Gasteluzar eta Paben 1686an 479 orrialdedun liburua aipatzen duenez, argi dago izenburua hau dela: *Eguia catholicac salvamendu eternalaren eguiteco necessario direnac*.

9.- *Doctrina Christiana.* Esteban Materre. Bayona, 1616.

10.- *Gueroco guero.* Pedro de Axular. Bordelen 1642an inprimatua dela dio Larramendik, baina data hau lehen edizioari dagokiona da eta titulua, ostera, data gabeko bigarren edizioari dagokiona.

11.- "Acaba de imprimirse una gramatica de Bascuence, y Francés, por su autor Monsieur Harriet" dio Larramendik oraingoan ere ez titulurik ez datarik ematen digularik. Duda gabe hau da aipatzen duen liburua: *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan.* Martin de Harriet. Bayona, 1741.

12.- "Fuera destos libros, se han impresso varios Cathecismos, assi en Bizcaya, como en Guipuzcoa, y Navarra; pero con poca atencion à la pureza del Bascuence, y à su Ortografia". Ez dakigu zeintzu izango ziren ezagutzen zituenak: *Bizkaian,* Betolaza (1596), Capanaga (1656), Arzadun (1731)? *Gipuzkoan,* Ochoa de Arin (1713), Irazusta (1742)? *Nafarroan,* Elizalde (1735)? Ezagutuko zituen guk ezagutzen ez ditugun Elsorena (1561) Nafarroan, eta Zubiarena (1691) Bizkaian?

13.- *Vocabulario.* Nicolao Landuchio. Orduan inprimatu gabe zegoen eskuiskribu honen kopia bat zeukan Larramendik, Madrideko Erret Bibliotekatik berridatzia.

14.- "Juan de Echeberria, natural de Sara en Labort, oy Medico de la Villa de Azcoitia... tiene años ha compuesto un *Diccionario quadrilingue de Bascuence, Castellano, Francès, y Latin...*". Hiztegi hau eskuartean eduki zuen Larramendik. Eskuiskribu hau ez da argitaratu eta ez dakigu non egon daiteken originala.

15.- *Iesus-Christ Gure Iaunaren Testamentu berria.* Joannes Lizarraga. La Rochele, 1571. Orain arte eman digun zerrendatik kanpo aipatzen du Larramendik itzulpen hau XXXVI-XXXVIII orrialdeetan XX. kapitulu osoa liburu honi eskainiz.

16.- *Diccionario trilingue* delakoan ez badu aipatzen ere, *El imposible vencido* liburuaren 379 orrialdean beste euskal liburu baten berri ematen digu. "Esta licencia (azentuaz ari da) se ve tambien en Fr. Juan de Aramburu, en su librito, *Devocino Escuarra, Mirailla, eta Oracinoteguia,* en que se ven en verso Bascongado muchas oraciones". Liburu honen titulua luzeagoa da (ikus Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia,* I, 210 orr.) eta Jean de Haramburu egileak bi argitarapen atera zituen Bordelen 1635 eta 1690ean.

Hau da Manuel Larramendik ematen digun bibliografia laburra. Denak dira euskaraz idatzitako liburuak, bi eskuiskribu ez ezik, orduan artikuluak agertzeko aldizkaririk ez zegoen eta. Bestalde gehienak Iparraldean argitaratuak dira. Juan Mateo Zabalak, gero ikusiko dugun bibliografiaren sarrera gisa zera diosku: "Dicho Larramendi da noticia de diez (obras) en su Prologo al Diccionario trilingüe pag. XXXIV, y sobre ellas solo hay que advertir que la que menta al n.° 6.° no tiene la pasion de Cristo segun San Juan, á lo menos en algunos ejemplares". Oker dabil aita Zabala irazkin honetan. Egia esan, Larramendiren zerrendan hamar di-

ra zenbakiarekin ematen dizkigun liburuak, baina aurrean zenbakia jarri gabe beste bost aipamen egiten ditu. Eta zerrendatik aparte, ikusi dugunez, beste liburu bat ere aipatzen digu *El imposible vencido* liburuan.

Ikus dezagun orain Juan Mateo Zabalaren *Noticia de las obras bascongadas que han salido á luz despues de las que cuenta el P. Larramendi.* Juan Ignacio Mendizabal tolosarrak egin zuen eskuzko kopia izan zen Louis Lucien Bonapartek erabili zuen originala Donostian, 1856an, Ignacio Ramon Barojaren moldiztegian 200 ale argitaratzeko. Zabalaren eskuiskribua Lecluseren eskuetara heldu zen 1828.eko apirilean. Bonapartek kaleratu zuen 12 orrialdedun liburuxka ez dut oraindik ikusi hurbileko liburutegietan, oso arraroa baita; Bizkaiko Foru Diputazioaren Bibliotekan dagoen eskuiskribuz (m/s Bv-94) baliatuko naiz Zabalak osotu zuen zerrenda emateko. Eta zerrendaren xehetasunak hitzez hitz emango ditut.

En bascuence de Francia

1.- Jesucristoren imitacionea: por D'Arambillaga: un Tomo en 8.° en Bayona por Antonio Faubet en 1684: contiene los libros 3.° y 4.°, y promete el 1.° y 2.° que no se si salieron. Su bascuence no tiene merito.

2.- Catechima Oloroeco Diocesaren cerbuchuco: en 8.°, en bascuence de Zuberoa bastante puro y natural, aunque dificil para otros dialectos por sus eufonias, bariaciones de bocales y otras singularidades, traducido del frances por Mr. Jaques de Maytie, Canonigo de Oleron, impreso en Pau en 1706 pr. Geronimo Dupoin.

3.- Gudu izpirituala, traducion del convate espiritual de Escupoli pr. Nl. Jh. Dr. Presbitero de Donibane, ó S. Juan de Luz, un Tomo en 8.° impreso en Tolosa pr. Juan Fran^co^ Robert en 1750, es de poco merito su lenguaje (Noel Joseph Duvergier dela egilea adierazten digute laburderek).

4.- Jesusen Biotz sacratuaren aldaraco devocionea, pr. M. G. un Tomito en 12.°, impreso segun su frontis en Bayona pr. Fran^co^ Trevose en 1757, ó segun su ultima oja en Tolosa pr. P. Robert. ("Trebosc" jartzen du Jon Bilbaok *Eusko Bibliographian*).

5.- Testament zarreco ta berrico historioa, que Mr. Larregi Cura de Basusarri tradujo del compendio de Royamont añadiendo al fin varias vidas de Santos. Está impreso en Bayona en 2 Tomos en 8.° pr. Faubet Duhart en 1777: su bascuence es bastante bueno.

6.- Guiristinoqui bizitzeco ta ilceco moldea: cuyo asunto es de meditaciones p^a^ que sirvan para la oracion: un Tomo en 12.° sin nombre de autor, impreso tambien en Bayona en 1787.

7.- Meditacioneac guei premiatsuen gainean: un Tomo en 4.° menor de 582 pag^s^ dibidido en 2 partes; cuya primera contiene 31 meditaciones traducidas del frances, y la 2.^a^ veinte originales: impreso en Bayona pr. M. Cluceau hermanos en 1809. Es obra postuma de un eclesiastico de dicho Obispado:

su asunto de meditacion es para tener oracion mental, pª la cual tambien da buenas reglas, y esta escrito en hermosisimo bascuence: hasta la pag. 45 es de agena mano, y bien sele hecha de ver en el lenguage, que es muy inferior.

8.- Un Catecismo en 8.° que se usó en el Obispado de Bayona, cuyo titulo es Guiristinoen dotrina laburra, impreso en dicha ciudad en 1788 por Faubet.

9.- Francesen Imperadorearen Eremuetaraco Eliza gucietaracotz eguina dan Catichima, ó sea Catecismo de Napoleon en 8.° en dicho Bayona pr. Cluceau hermˢ. Ambos tienen buen bascuence, pero el 1.° mejor.

10.- Cantico izpirituala en 8.° de 24 pagˢ en Bayona en 1791.

11.- Otro cantico izpirituala en 8.° de 80 pagˢ, tambien en Bayona por Faubet el Joven, sin año de impresion: cuyo autor, que es anonimo, parece que ha observado el gusto del bascuence en orden a las dieresis, sinalefas y diptongos sin valerse de las licencias demasiado amplias que da Larramendi (Arte pag. 378) y de que han hecho comunmᵗᵉ uso los poetas españoles y franceses. Contiene mucha variedad de metros de varias mesuras y estancias que hacen no poco honor á nuestro idioma.

12.- Eucologia ttipia, que contiene antifonas, himnos & segun el Brebiario de Bayona, con rubricas en bascuence.

Nota. Como varios de los autores de las siguientes obras aun viven, me abstengo de dar censura á sus obras, sino la merecen buena. Tales son las de los números 31, 32, 33, 34 y 46.

En bascuence español

En Dialecto Navarro

13.- Apecendaco doctrina cristiana ucaraz. Doctrina Cristiana para uso de los eclesiasticos pr. el P. Franᶜᵒ Elizalde Jesuita, impreso en Pamplona en 1735, su tamaño es como el regular de un Astete, aunque algo mas corpulento.

14.- Cristau Doctrina, traducida del Astete por el P. Anivarro de quien despues hablaremos. Esta en buen bascuence e impreso en Pamplona que en esta lengua se llama Iruña.

En Dialecto Guipuzcoano

15.- Jesusen biotz maitearen devocioa, del P. Sebastian de Mendiburu de la Compª de Jesus, un Tomo en 8.° impreso en Pamplona. Andan por separado las reglas de los cofrades, impresas en San Sebastian (en bascuence Donostia) pr. Bartolome Riesgo Montero en 1747. Su bascuence guipuzcoano mezclado con Navarro es tan bueno, que el P. Larramendi le escribió en el mismo idioma una carta fechada en Loyola en 15 de Marzo de 1747, toda llena de entusiasmo y complacencia, al ver esplicados con tanta pureza, propiedad y elegancia los asuntos de nuestra Santa Religion. Suele andar esta carta al

principio de esta obra, y puede servir de ensayo y reseña de la perfeccion á que pudiera llegar nuestro idioma, si se tratase de cultivarle.

16.- Otoiz gaiac, ó asuntos y materia para la oracion, del mismo Mendiburu, impreso en Pamplona por Antonio Castilla en 1760: anda en dos tamaños, en 4.° y en 8.°: la primera se compone de 3 Tomos, la 2.ª de 11 con inclusion de varias novenas &.

17.- Cristavaren vicitza, traducion de Dutari, pr. el P. Agustin Cardaberaz: un Tomito en 16.° impreso en Pamplona por Castilla en 1760: el bascuence de Cardaberaz no es muy puro; pero abunda de muy buenas espresiones, y tiene una colocacion tan airosa, que con razon merece ser leido, y especialmente el Dutari.

18.- Aita San Ignacioren ejercicioen gañean, ó meditaciones sobre los ejercicios de San Ignacio pr. dho. Cardaberaz: 4 Tomos en 8.° impresos en Pamplona pr. dho. Castilla en 1761, y reimpresos en Tolosa por Fran^co^ de la Lama.

19.- Eusqueraren berri onac, en 8.° del mismo autor, impresion y año.

20.- Jesus, Maria eta Joseren Debocioa del mismo autor un Tomo 12.° o 16.° segun las diferentes impresiones de Pamplona & en 1763.

21.- Jesusen ispillu arguia, vidas de S^n^ Luis Gonzaga y S^n^ Estanislao de Cosca, id id 1764.

22.- Vidas de San Isidro Labrador y Sta. M.ª de la Cabeza, id. id.

23.- Ondo ilcen icasteco ta lagunceco, modo de ayudar a bien morir id. id. en 1765.

24.- El año 1826 se ha impreso en Tolosa en la oficina de Lama un devocionario en 12.° que se dice estractado de las obras del P. Cardaberaz con titulo de esculibrua. Ojala que le hubiera redactado una mano mas bascongada.

25.- Cristau dotriñaren esplicacioa con su traducion castellana al frente, por D^n^ Fran^co^ Javier de Lariz Presbitero, un Tomito en 8.° en Madrid en la imprenta de Sancha año de 1773. Tiene poca recomendacion su bascuence.

26.- Cristau dotriñ berri ecarlea. Traducion de Catecismo histórico de Fleuri por el P. Fr. Juan Antonio de Ubillos, del orden de San Fran^co^. Es bascuence por todos respetos bellisimo. Esta impreso en 8.° en Tolosa por el citado Lama, año de 1785.

27.- Confesio eta Comunioco Sacramentuen gañean eracusteaac, ó doctrina sobre la confesion y comunion, un Tomo en 4.° en buen bascuence. Su autor D^n^ Juan Antonio de Moguel, vizcaino, cura de Marquina, á quien por lo mismo deben perdonarse algunos defectos q^e^ incurre en el dialecto. Esta impreso en Pamplona en casa de la viuda de Ezquerro año de 1800.

28.- Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos, por el mismo Moguel, un folleto en 4.° impreso en Tolosa

por Lama en 1802. Contiene las arengas de Alejandro Magno, Catilina y Germanico a sus soldados, los exordios de las dos Catiliniarias de Ciceron y tres anecdotas de Escipion, Dionisio y Camilo.

29.- Ipui onac, que contiene 50 fábulas en prosa, sacadas de las (de) Esopo por D.ª Vicenta Antonia de Moguel, y siete en verso de su tio Dⁿ Juan Antonio. Al bascuence de la sobrina cuadra la calificacion de al del tio, excepto que su colocacion es menos airosa que la del de este. Esta impreso en San Sebastian por Antonio Undiano, año de 1804 en 8.°.

30.- Confesioco ta Comunioco Sacramentuen gañean: sobre la primera comunion de los niños, por Dⁿ Juan Bᵗᵃ de Aguirre, Beneficiado de Asteasu, escrito en muy hermoso bascuence. Se imprimio en Tolosa pr. Lama año de 1803 en 8.° y se ha reimpreso por su hijo Dⁿ Juan Manuel.

31.- Devociozco vicitzaren sarrera. Traduccion libre de la introduccion à la vida devota de S. Franᶜᵒ de Sales, pr. el P. Fr. Jose Cruz de Echeverria, Misionero franciscano de Zarauz: un Tomo 8.°, en Tolosa pr. Dⁿ Francisco de la Lama año de 1821.

32.- Ongui vicitzeco, ta ongui ilcen lagunza, pr. el mismo autor, en 8.° impreso en Tolosa pr. Dⁿ Juan Manuel de la Lama en 1824.

33.- Cristau Doctriña euskaraz: el Astete añadido con varias preguntas y respuestas por dho. autor impreso en 16.° por Dⁿ Franᶜᵒ de la Lama en 1822.

34.- Guipuzcoaco danza: su autor Dⁿ Juan Ignacio de Istueta. Trata de las danzas y vailes antiguos de Guipuzcoa, y modo de egecutarlos. Es un Tomo en 4.° impreso en San Sebastian pr. Ignacio Ramon de Baroja año de 1824.

35.- Traducciones del Astete se conocen 3, la del P. Larramendi, impresa en Burgos sin mas nombre del autor que el general de un Jesuita, ni fecha de año, está cual debia esperarse de un bascongado tan insigne como él.

(36).- La del P. Cardaberaz es tambien buena. Esta imprimió Don Juan Bᵗᵃ Aguirre en 8.° en San Sebastian en casa de Lorenzo Jose Riesgo Montero.

(37).- La de Irazuzta Rector de Ernialde que es la usual, esta en muy mal bascuence.

(38).- (Lehengo zenbakiaren ondoan hiru dotrina daudela kontutan izanik, hurrengo fitxari 38 zenbakia dagokio, eta hala jarraituko dugu gure zenbakiak parentesi artean sartuz. Aita Zabalak berak ere zalantzak izan zituen aurrerantzeko zenbakietan, zeren 40 zenbakia jarri zion hurrengoari eta gero gainean 36 zenbakia jarri zion)

40.36. No merece aprecio alguno el Catecismo de Villafranca pr. su lenguaje sumamente malo, y que esta muy recargado de barbarismos y solecismos, que de citas, á pesar de que estas son muchisimas. (Ochoa de Arin-en Dotrina da hau, Donostian 1713an Pedro de Ugartek inprimatua).

(39).- 41.37. El Sermon de San Antonio Abad de Dⁿ Miguel Ignacio de Zavaleta, impreso en Tolosa por Lama Padre en 1786, tiene un bascuence algo afectado y poco natural.

Dialecto vizcaino

Todos los libros de este dialecto están escritos en pronunciacion Marquinesa, á excepcion de los del P. Anibarro, Cardaberaz, el pequeño doctrinario de Arzadun y el Astete que sacó para la Vicaria de Busturia el Señor Moguel. Voy a dar noción de dicha pronunciacion, para que á los de los otros dialectos sirva de facilitar su lectura. En Marquina, y mucha parte de Vizcaya (como tambien en las cinco villas de Navarra y pueblos de su comarca), alteran por eufonia para mayor suabidad las cuatro vocales últimas al contacto con otras de la manera siguiente: La *e* encontrandose con la *a, o, i, u* se muda en *i;* a la *i* se le añade una j pronunciada á la latina: á la *u* una *b:* y la *o* se cambia en *u* antes de la *a* y *e.* Asi dicen de *beste,* bestia, bestientzat, bestioc: de *gari,* garija, garijentzat, garijoc: de *buru,* buruba, burubentzat, buruboc: y de *arto,* artua, artuentzat, artuoc. Se dice eufonicamente: *zubec sonecuari escubagaz eutsijagaiti, aishiac eruango deutsube.* Lo que en pronunciacion natural se dice: *Zuec soñecoari escuagaz eutsiagaiti, aisheac eroango deutsue.* (Azken esaldi honetan aldatu ditut eskuiskribuan agertzen diren "zubec", "soñecuari" "eruango", Mendizabalek txarto kopiatu bait zituen).

Los libros de Dialecto vizcaino son los siguientes:

(40).- 42.38. El Catecismo de Ripalda, por el Licenciado Capanaga, Presbº de Mañaria en 1667.

(41).- 43.39. Jesus Maria ta Joseren Devociñoco liburuchotic ateraricaco devociño batzuec. Por el P. Cardaberaz. Ez un compendio del que antes se ha mentado de dho. P. en Guipuzcoano, y le cuadra la misma calificacion, aunque con cierto mayor mérito al elogio, porque, siendo guipuzcoano natural de San Sebastian, acertó á escribir tambien en vizcaino, debiendosele con razon disimular los pequeños defectos en que incurrió. No usó en esta obra de j acomodandose á la pronunciacion general de Vizcaya; (Vease el eusqueraren berri onac, pag. 44, donde asegura que la j gutural no es propia del bascuence, sino pegada del castellano; y hace mencion del uso de la yota en Vizcaya) aunque no tuvo acierto en el uso de la i vocal por consonante. Es un tomito en 16.º impreso en Pamplona en Casa de Antonio Castilla en 1764.

(42).- 40. Doctrina cristiana, traduccion del Astete por el mismo, sin nota de impresion ni año.

(43).- 44.41. Cristauben Dotriñia, de Dn. Bartolome de Olaechea, Cura del hospital de Bilbao: un tomo en 8.º de Doctrina Cristiana y varias practicas y ejercicios piadosos, sacadas de las obras de dicho Cardaberaz, en bascuence poco puro, pero que conserva la hermosa colocacion del original. Su Doctrina en el orden de las materias, y en las preguntas y respuestas es la

misma que la del catecismo de Zuberoa de que hemos hablado antes, aunque en partes algo abreviada. La obra de Olaechea se ha reimpreso muchas veces.

(44).- 45.42. Esculiburua ó manual de ejercicios devotos por el P. Fr. Pedro Antonio Añibarro Misionero de Zarauz: un Tomo en 12.° impreso en Tolosa pr. Dⁿ Franᶜᵒ de la Lama en 1802 se ha reimpreso en los de 1821 y 1827 algo añadido y corregido en el lenguage y en la mensura y naturalidad de los versos, abundante el 1.° de espresiones del centro de Vizcaya, y observando los 2.ᵒˢ, excepto dos veces, el gusto que antes hemos dicho del bascuence en las dieresis y sinalefas. Tiene una ortografía singular que no ha gustado a todos como sucede siempre con lo inusitado.

(45).- 46. Lora sorta espirituala, traducion del ramillete de flores y propositos del P. Palacios, misionero del mismo Colegio, por el dicho Anivarro, y en la misma imprenta en 8.°, año de 1803.

(46).- 47. Confesiño ona, por Dⁿ Juan Antonio de Moguel que sacó en buen vizcaino algo abreviadas las doctrinas de la confesion, que antes se han mencionado entre las obras guipuzcoanas. Un tomo en 8.°, en Vitoria pr. Dⁿ Fermin de Larumbe año de 1803.

(47).- 48. Cristinaubaren Jaquinbidia, traducion del Astete por el mismo Moguel; es cosa acabada y perfecta en su clase.

(48).- La misma sacó despues en pronunciacion natural pᵃ la Vicaria de Busturia con titulo: Cristiñau Dotriñia; esta tambien buena.

49.- Urteco domeca guztietaraco berbaldi icasbidecoac. Dos Tomos en 4.° de Doctrinas para todas las dominicas del año, del P. Fr. Pedro de Astarloa, Lector Juvilado & del orden de San Franᶜᵒ, impresos en Bilbao en 1816. Su bascuence es bastante bueno; pero con las multiplicadas voces castellanas, que á pretesto de claridad añade sin mucha necesidad á las bascongadas, con la disyuntiba *edo* corta la fluidez del estilo, y hace ingrata su lectura.

50.- Jaungoicuaren amar mandamentubetaco icasbidiac. 3 Tomos en 4.° de doctrinas sobre mandamientos y sacramentos pr el P. Fr. Bartolome de Santa Teresa, carmelita descalzo. Si á este autor no tomamos en cuenta algunas voces no bascongadas, en que ha conteporizado con el vulgo de su patria, omitiendo sus equibalentes bascongadas castizas, que se entienden claramente en Vizcaya: el no haber hecho uso de las conjugaciones de 2.ª persona de plural, y algun otro defecto que pudiera haber corregido con un rasgo de pluma, no podemos menos de confesar que su bascuence es propio, natural y abundante, á boca llena bueno y comparable no solamente con los mejores de su dialecto, sino aun tambien con los de los otros. Estan impresas estas doctrinas en Pamplona en casa de Rada en 1816.

51.- Euscal-errijetaco olgueta ta dantzen neurrizco gatz ozpinduba: Un tomito en 8.°, contra vailes por el mismo autor, en Pamplona pr. Joaqⁿ Domingo en 1816.

52.- Baserritar necazaleentzaco escolia: un tomo en 8.° en dialogo sobre la educacion de los hijos, con solas las iniciales del nombre del autor que es Dⁿ Juan Jose de Moguel, Cura de Marquina, sobrino de Dⁿ Juan Antonio, y hermano de D.ª Vicenta Antonia: tiene muy buen bascuence, y está impreso en Bilbao pr. Dⁿ Pedro Antonio de Apraiz en 1816.

53.- Eguneroco lan on ta erreguac: Devocionario en 8.° pr. el mismo autor aunque sin espresar su nombre, ni aun sus iniciales. Es superior en el bascuence al precedente y su colocacion es mas airosa, conforme al gusto oriental de dha. lengua, esta impreso en Bilbao pr. Jose de Basozabal en 1820.

54.- El Doctrinario de Dⁿ Martin de Arzadun, no tiene ningun merito.

55.- El libro de la 3.ª orden de Bermeo intitulado errosario edo Coroa Santua... impreso en Bilbao en 8.° año de 1780 y un calvario impreso en dha. villa sin año de impresion y ambos anonimos, son de un bascuence malisimo.

Hemen amaitzen da Juan Mateo Zabalaren bibliografia edo Lecluseri 1828an igorritako 55 liburuen zerrenda, gero Bonapartek Donostian 1856an argitara eman zuena. Erabili dudan eskuiskribuaren hurrengo bost orrialdeetan agertzen dira beste berri batzu euskararekin zerikusirik dutenak, hala nola, *Noticia de algunos autores que escribieron del basquence* (Masdeu, Astarloa, Hervas, Zamacola, Sorreguieta, Erro) baina ez zutenez euskaraz idatzi ez ditu Zabalak zerrendan sartu, *Conjugacion del trato cortés de Zu, Numero de conjugaciones familiares de Ic,* eta *Facilidad de la conjugacion bascongada.* Baina euskal edo euskararen bibliografiaz ari garanez, ez dute tokirik lantxo honetan.